


ZAINDUZ

zaintzaileentzat



Zainduz mendeko pertsonen **zaintzaileei** laguntzeko, erlaxatzeko eta orientatzeko asteroko talde-jarduera bat da, langile kualifikatuek gidatua. 90 minutuko saio horietan, pertsonen zaintzarekin, kezkekin, zailtasunekin eta premiekin lotutako gaiak jorratzen dira, **metodologia praktikoa eta parte-hartzaile** baten bidez.

NOR?

Hauek dira zerbitzu hau eskura dezake-ten pertsonak:

- Mendekotasun-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen zaintzaileak, profesionalak ez direnak. Ez dute zertan zaintzaile nagusiak edo senideak izan. Lehentasuna ematen zaio zaintzak etxean ematen dituzten pertsonari.

NOLA ESKATZEN DA?

Zerbitzua eskatu aurretik, beharrezkoa da hitzordua izatea gizarte-langile batekin, zure premiei hobekien erantzuten dien zerbitzua den ala ez batera baloratzeko eta sartzeko baldintzak betetzen diren erabakitzeko. Hitzordua telefonoz edo aurrez aurre eska dezakezu gizarte-zerbitzuetan bertan edo Abiapuntun.



KOSTUA

DOAKO zerbitzua da.



ESKUDUNTZA

Udal-eskumena:
Ermuko Udala



943 179 161



Erdikokale 21,
48260 Ermua